



EBAZPENA, 2022ko ekainaren 1ekoa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, funtzionarioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legeak sortutako kidego eta eskaletan INTEGRATZEKO PROZEDURAN ezarritako integrazio-proposamena onartzeko edo aldatzeko epea luzatzen da, baita erreklamazioak aurkezteko epea ere. Prozedura hori Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenaren bidez arautu zen.

LEHENENGOA.- Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenaren bidez arautu zen funtzionarioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legeak sortutako kidego eta eskaletan integratzeko prozedura. 6. artikulua honako hau ezartzen du:

*"1.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epea irekiko da Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak egindako integrazio-proposamena onartzeko ala aldatzeko.*

*2.- Epea irekitzearekin batera, integrazio-proposamena prozedura honetan parte hartu behar duten langileen eskura jarriko da, Nire Karpeta atalean, hain zuzen. Era berean, proposamen hori Enpleguaren Atarira bidaliko da, jarduneko langileei jakinarazteko (...)*

*Funtzionarioek proposamena onartu ala aldatu beharko dute, Enpleguaren Atarian horretarako berriaz gaitutako prozesuan parte hartuz (...)*

RESOLUCIÓN, de 1 de junio de 2022, del Viceconsejero de Función Pública, por la que se amplía el plazo para aceptar o modificar la propuesta de integración, así como para presentar reclamaciones establecido en el PROCEDIMIENTO DE INTEGRACIÓN del personal funcionario en los cuerpos y en las escalas creados por la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regulado mediante Resolución de 13 de mayo de 2022, del Viceconsejero de Función Pública.

PRIMERO.- Mediante Resolución de 13 de mayo de 2022, del Viceconsejero de Función Pública, se convoca el procedimiento de integración del personal funcionario en los cuerpos y en las escalas creados por la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. El artículo 6 establece lo siguiente:

*"1.- Al día siguiente de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se abrirá un plazo de 10 días hábiles para aceptar o modificar la propuesta de integración efectuada por la Dirección de Función Pública.*

*2.- Simultáneamente a la apertura del plazo, se pondrá a disposición del personal que ha de tomar parte en el presente procedimiento, en la carpeta ciudadana Mi Carpeta, la propuesta de integración. Asimismo, esta propuesta será enviada al Portal de la persona empleada para su comunicación al personal en activo (...)*

*El personal funcionario deberá aceptar o modificar la propuesta participando en el proceso específico habilitado en el Portal de la persona empleada (...)*





*Halaber, aplikazioaren bidez eta 10 egun balioduneko epe berean, dagozkion erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira proposamenaren aurka."*

*3.- Jardun-egoeraz edo parekatutako egoeraz bestelakoan dauden eta, beraz, Atarira sartzerik ez duten langileek, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak egindako proposamena aldatunahi badute, Internet bidez egin ahal izango dute: [www.euskadi.eus/integrazioa](http://www.euskadi.eus/integrazioa) (...)"*

BIGARRENA.- 2022ko maiatzaren 23an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpena.

Maiatzaren 24an, 10 egun balioduneko epea hasi zen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak egindako integrazio-proposamena onartzeko edo aldatzeko. Proposamen hori enpleguaren Atarian eta [www.euskadi.eus/integrazioa](http://www.euskadi.eus/integrazioa) helbide elektronikoan zegoen eskuragarri egun horretan. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, NIRE KARPETAren bidez, ezin izan ziren proposamen guztiak jakinarazi aurreikusitako egunean, arazo teknikoengatik.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikulua araberak, gorabehera tekniko batek dagozkion sistema edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragotzi badu, eta arazoa konpondu arte, amaitu gabeko epeak luzatzea erabaki ahal izango du Administrazioak.

Azaldutakoarekin bat etorritik, integrazio-proposamena onartzeko edo aldatzeko epea, baita erreklamazioak egiteko epea ere, 2022ko ekainaren 6an amaitzen zena (egun hori barne), lau egun baliodunetan luzatuko da, eta 2022ko ekainaren 10ean amaituko da (egun hori barne).

*Asimismo, y a través de la propia aplicación y en el mismo plazo de 10 días hábiles se podrán presentar las reclamaciones que contra la propuesta correspondan.*

*3.- El personal que se encuentre en una situación distinta a la del servicio activo o asimilada y, por lo tanto, no tenga acceso al Portal, y quiera modificar la propuesta efectuada por la Dirección de Función Pública, podrá hacerlo a través de internet: [www.euskadi.eus/integracion](http://www.euskadi.eus/integracion) (...)"*

SEGUNDO.- Con fecha 23 de mayo de 2022 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Resolución de 13 de mayo de 2022, del Viceconsejero de Función Pública.

El día 24 de mayo se inició el plazo de 10 días hábiles para aceptar o modificar la propuesta de integración realizada por la Dirección de Función Pública, que estaba disponible en el Portal de la persona empleada y en la dirección electrónica [www.euskadi.eus/integracion](http://www.euskadi.eus/integracion) en dicha fecha. Sin embargo, la comunicación de las propuestas en la sede electrónica del Gobierno Vasco, a través de MI KARPETA, no se pudo realizar en el día previsto por problemas técnicos.

De acuerdo al artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, cuando una incidencia técnica haya imposibilitado el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación que corresponda, y hasta que se solucione el problema, la Administración podrá determinar una ampliación de los plazos no vencidos.

De conformidad a lo expuesto, el plazo para para aceptar o modificar la propuesta de integración, así como para presentar reclamaciones, que finalizaba el día 6 de junio de 2022 (inclusive) se ampliará en cuatro días hábiles y finalizará el día 10 de junio de 2022 (inclusive).

EBAZTEN DUT:

Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenaren 6. artikuluan ezarritako integrazio-proposamena onartzeko edo aldatzeko epea luzatzea, baita erreklamazioak egiteko epea ere. Ebazpen honen bidez arautu zen funtzionarioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legeak sortutako kidego eta eskaletan integratzeko prozedura.

Epea 2022ko ekainaren 10ean amaituko da, 23:59an.

RESUELVO:

Ampliar el plazo para aceptar o modificar la propuesta de integración, así como para presentar reclamaciones establecido en el artículo 6 de la Resolución de 13 de mayo de 2022, del Viceconsejero de Función Pública, que regula el procedimiento de integración del personal funcionario en los cuerpos y en las escalas creados por la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El plazo finalizará el día 10 de junio de 2022 a las 23:59.